

BERNARDO ATXAGA.—*Bi anai*. (3gn. argitalpena). Erein.  
Donostia, 1986.

Kontalari trebea den aldetik, ez dut uste egileari asko axola zaionik ipui luzea non bukatzen den eta eleberri laburra non hasten den. Gaiak eskatzen dion neurri eta arauetara landuaz arituko da, mugarik jarri gabe. Eta hala behar ere heldutasuna eta nortasunaren jabe diren idazleen artean.

Bi anai umezurtzen historia da kontatzen diguna. Bataren zentzu eskasia besteak estali nahiz; bataren arintasuna bestearen nekegarri. Egoerak, zentzunduna barnekoiago bihurtzen du. Hala ere, jasan ezinezko zama, esistentzia ilun batean murgiltzera bultzatzen duena.

Aise irakurtzeko eran dago. Beti bezala, hizkuntza joria ageri zaio egileari; baina kontatzeko era, trebea edukiarren, gaztetxo edo haurrei egiten zaien erakoa du. Pasarteen une guziak zirrikiturik gabe utzi nahi, xehetasunez ondo loturik, ipi-apa adiaraziz, eta gaztetxoentzat goxoa daitekeena adinekoentzat enpagugarri. Hala ere, eskuetatik erori gabe arretaz irakurtzekoa da.

Denok dakigu literaturgintzarako gure hizkuntzak dituen ajeen berri, zein lotua aurkitzen dugun eredu idatzirik urri dugunez. Horren hornigarri, handik eta hemendik, edozein euskalkitatik garraiatzen ditugu hitzak lana gorpuztuz eraikitzeko, eta ez da batere harritzekoa hitz horietarik zenbait doitasunez ez kokatzea edo okerreko lekuan jartzea. Are gehiago hiztegiaren batean *erdu* hitza, erdarazko *venir*-en ordezeko jarri denean. Hiztegi modernoak nahi dutena esango dute, baina *erdu*, *zatoz*-en ordezeko erabiltzen da Bizkai aldean eta ezinezko da “*ni zatoz*” esatea. Baina hola dator 100. orrialdean irakurtzen denez: “Erdu nintzen plazara”. Bai Bernardo adiskidea. Baina, tipikeri hori gora-behera, erdu holako ipuiekin gure literatur plazara.

J.S.M